



Langabezia Europar Batasunean, haren eskualdeetan eta Gipuzkoan

• 18,4 milioi lagun langabezian Europar Batasunean


Europar Batasunak duen atzeraldi ekonomikoa nabarmen ari da eragiten langabezia-tasan: BPGd-ak 2008ko azken hiruhilekoan % 1,5eko beherapena izan zuen eta aurten % 1,8ko uz-kurdura izateko aurreikuspena egin dute.

Urtarrilean, Batasunean langabezian 18,4 milioi lagun zeudela kontabilizatu zen, horietatik 3,5, Espainian; 3,2, Alemanian, eta 2,4, Frantzian.

• Langabezia-tasan gorakada handia izateko aurreikuspena

Eta langabezia-tasa % 7,6an zegoen hilabete horretan (Eurostaten datuen arabera), eta 2009an batez beste % 7,8 arte igotzeko aurreikuspenak zituen Europako Batzordeak, eta 2010erako, berriz, % 9,5ekoa, azken hamarkadako maila altuenak gaindituz.

Europako herrialdeen artean barreiadura handia ikus daitekeen arren, 2010ean Batasuneko herrialde guztiek langabezia-tasaren % 5 gaindituko lukete; eragin gutxien duten herrialdeetan (Eslovenia, Holanda eta Danimarka) tasa hori pixka bat gainditu egingo litzateke, eta tasa handieneko herrialdeetan % 10 ere gainditu egingo litzateke: Espainia (tasa oso altua izateagatik nabarmenduko litzateke), Letonia, Irlanda, Frantzia, Eslovakia eta Lituania.






• Langabeziak gehiago eragiten die gazteei eta emakumeei

Emakumeen langabezia-tasa altuxeagoa izan da gizonezkoena baino urtarrilean (% 7,8 eta % 7,5, hurrenez hurren), azken urtean aldeak murriztu egin diren arren. Hala ere, Irlanda, Letonia edo Lituanian, esate baterako, gizonezkoen tasak nabarmen gainditzen du emakumezkoena (ehuneko 4-5 puntu inguru).

• % 17ko langabezia-tasa gazteen artean

Bestalde, adin taldeen arabera azterketaren arabera, 15 eta 24 urte arteko adin taldea da langabezia-tasa altuena duena: 2009ko hasieran % 17 ingurukoa. Gazteen artean, langabezia-ren banaketa nabarmena da: Holandan, Austrian eta Danimarkan ez da iristen % 10era; Espainian, Hungarian, Suedian, Eslovakian, Grezian eta Frantzian, berriz, % 20 gainditzen du.



Lan-egoera Europar Batasunean:
<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?catId=120&langId=en>



• Europako eskualdeetan, langabezia-tasa % 2,1 eta % 25,7 artean dago

Datuak eskuragarri dauden Batasuneko 263 eskualdeen artean (NUTS 2), langabezia-tasari dagokionez desberdintasun handiak ikus daitezke.

Eusotategen emandako 2007ko datuen arabera (EB 27ko langabezia-tasa % 7,1ekoa zen urte horretan), 28 eskualdeetan langabezia-tasa % 3,5ekoa edo baxuagoa zen (EBren erdia). Talde horretan sartzen dira Holandako 8 eskualde, Italiako 7, Erresuma Batuko 5, Txekiar Errepublikako eta Austriako 3, eta Belgikako 2.

Langabezia-tasa baxueneko eskualdeak	Langabezia-tasa (%)
<i>Zeeland (Holanda)</i>	2,1
<i>Praha (Txekiar Errep.)</i>	2,4
<i>Bolzano/Bozen (Italia)</i>	2,6
<i>Gelderland (Holanda)</i>	2,7
<i>Utrecht (Holanda)</i>	2,7
<i>Nord-Brabant (Holanda)</i>	2,8
<i>Tirol (Austria)</i>	2,8
<i>Emilia-Romagna (Italia)</i>	2,8
<i>Salzburg (Austria)</i>	3,0
<i>West-Vlaanderen (Belgika)</i>	3,0

Langabezia-tasa handieneko eskualdeak	Langabezia-tasa (%)
<i>Reuni3n (Frantzia)</i>	25,2
<i>Guadeloupe (Frantzia)</i>	25,0
<i>Martinique (Frantzia)</i>	22,1
<i>Guyane (Frantzia)</i>	21,0
<i>Ceuta (Espainia)</i>	20,3
<i>Melilla (Espainia)</i>	18,2
<i>Mecklenburg-Vorpommern (Alemania)</i>	17,4
<i>Leipzig (Alemania)</i>	17,2
<i>Bruxelles Cap./Brussels Hfdst. (Belgika)</i>	17,1
<i>Berlin (Alemania)</i>	16,3


Beste muturrean, langabezia-tasa % 14,2koa edo handiagoa zen (EBko bikoitza) 14 eskualdeetan: Alemaniako 5, Frantziako 4 (itsasoz bestaldeko guztiak), Espainiako eta Eslovakiako 2 eta Belgikako 1. Maximoa itsasoz bestaldeko Frantziako Reuni3n departamendukoa zen (% 25,2).



- Emakumezkoen eta gazteen langabezia

Emakumezkoen langabezia-tasa gizonezkoena baino handiagoa zen Europako eskualdeen hiru laurdenetan. Emakumezkoen langabezia-tasa baxuenak hemen ikus zitezkeen: Zeeland-Holanda (% 2,4), Praha-Txekiar Errepublikak (% 2,8) eta Cheshire-Erresuma Batua (% 2,9). Al-diz, Ceuta eta Melillan tasa altuenak zeuden.

Gazteen artean (15 urtetik 24ra), langabeziaren eragina nabariagoa zen (2007an EB-27ko batez bestekoa % 15,3koa). 26 eskualdetan langabezia-tasa % 7,6 baino txikiagoa zen (Batasuneko batez bestekoaren erdia), eta Holandako eta Alemaniako eskualdeak nabarmentzen ziren. Kontrako muturrean, nabarmentzekoa da Frantziako itsasoz bestaldeko eta Italiako hegoaldeko eskualdeetako gazteen langabezia-tasa.





Euskadiko langabezia-tasa Europako eskualdeetako % 58koa baino baxuagoa da

Eurostatek emandako 2007ko datuen arabera, Euskadiko langabezia-tasa % 6,1ekoa da, EB-27ko batez bestekoa baino baxuagoa (% 7,1). Tasa horrek Europako eskualdeen artean 111. lekuan jarri zuen, langabezia-tasa baxuari zegokionez, Europako eskualdeen %58 baino egoera hobearakin.

Batasuneko eskualdeen artean, Alsace bakarrik zegoen Euskadiko tasa berarekin urte horretan, nahiz eta beste sei eskualdetan ere tasa oso antzekoa izan (ehuneko hamarren bat baxuago edo altuago). Eskualde horietako 4 Erresuma Batukoak dira, bat Frantziakoa eta beste bat Italiakoa.

Euskadiko langabezia-tasa bera/oso antzekoa duten eskualdeak

- *Alsace (Frantzia)*
- *Pays de la Loire (Frantzia)*
- *Abruzzo (Italia)*
- *Tees Valley & Durham (Erresuma Batua)*
- *Northumberland and Tyne & Wear (Erresuma Batua)*
- *Greater Manchester (Erresuma Batua)*
- *East Yorkshire & Northern Lincolnshire (Erresuma Batua)*

- Langabeziaren konparaziozko eragin handiagoa emakumeen artean eta, batez ere, gazteen artean

Emakumezkoen artean, Euskadiko emakumezkoen langabezia-tasa, Eurostateko azterketen arabera, % 7,8koa izatea kalkulatzen zen. Tasa hori EB-27ren batez bestekoan dago.

Eskualdeko eskalan, 121. lekua du (eragin txikienetik handienera) emakumezkoen langabezia-tasan eta, beraz, Europako eskualdeen % 52 baino egoera okerragoan dago.

Euskadiko gazteen langabezia-tasari dagokionez, Europar Batasuneko batez bestekoarekiko langabezia-tasa handiagoa ikus daiteke (% 17,1 eta % 15,3, hurrenez hurren).

Eta tasa horren arabera 162. postuan dago Europako eskualdeen artean, Europako eskualdeen % 36 gaindituz langabezia-tasa baxuenari dagokionez.



• **Gipuzkoa: Europako eskualdeen % 75 baino langabezia-tasa baxuagoa**

Aurreko atalean erabilitako metodologia oinarri hartuta, Europako eskualdeen testuinguruan Gipuzkoaren lekua nabarmen hobetu da Euskadin.

Hori dela eta, 2007an Gipuzkoako batez besteko langabezia-tasa % 4,9koa zen (Eurostatek emandako informaziotik etorritako EINen biztanleria aktiboaren inkestaren arabera kalkulaturik), Euskadikoa baino ehuneko 1,2 puntu gutxiago.

Tasa horrek Gipuzkoa Europako eskualdeen artean 65. lekuan jartzen du, eskualdeen % 75 baino langabezia-tasa txikiagoarekin.

Alemaniko makroeskualde Baden-Württemberg (Stuttgart, Karlsruhe, Freiburg eta Tübingen) eta Holandako Groningen eskualdea dira Gipuzkoaren langabezia-tasa bera dutenak.

Gipuzkoako emakumezkoen artean, langabezia % 6,1ekoa zen urte horretan, Europako eskualdeen zerrendan 88. lekuan, eta eskualde haien % 65 baino egoera hobearrekin.

Bestalde, Eustateko langabezia-tasaren kalkulu-metodologia hartuz gero (jarduerarekiko biztanleriaren inkesta), 2007ko Gipuzkoako guztizko langabezia-tasa % 2,6koa izango litzateke, Europako eskualdeen artean aurrean.

• **Langabeziaren oraingo eboluzioa Gipuzkoan: krisi ekonomikoaren isla**

2008ko lehen hiru hiruhilekoetan, Gipuzkoako langabezia-tasa egonkor mantendu zen % 4,8an (EINen datuak), eta azken hiruhilekoan nabarmen egin zuen gora, % 6,7ra arte, jarduera ekonomikoaren geldialdi orokorra testuinguru izanik.

Eustaten PRA inkestak, era berean, goranzko joera agertzen du urteko azken hiruhilekoan, langabezia-tasa biztanleria aktiboaren %3,9ra iritsiz.

Langabeziaren administrazioko erregistroetako azken datuei dagokienez, 2009ko otsailean erregistratutako langabetu kopurua Gipuzkoan 34.635ekoa zen.

2008ko ekainetik, erregistratutako langabezia 10.745 lagun gehiagokoa da (% 45 gehiago, ehunekotan adierazita); urritik aurrera hazkundeak azelerazioa izan du.

Langabeziak gaur egun emakumeen gehiengoari eragiten dion arren (guztizkoaren % 53), azken zortzi hilabeteetan gizonezkoen langabezia-tasa % 74 ugaritu da, eta emakumeena, berriz, % 26. Era berean, biztanleria gazteena (% 93) eta aurrez industrian lan egiten zuena (% 64ko igoera) nabarmen dira, egungo krisi ekonomikoaren egoeraren harira lan-eremuan duten urrakortasuna dela eta.